

Kikura, Bikura eta Lakirikon

6. KAPITULUA

6. KAPITULUA:

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena 2. or.

6. kapitulua:

- Helburuak 3. or.
- Ekintzak 3. or.
- Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz 4. or.

Bibliografia 7. or.

Egileak 8. or.

GIDA DIDAKTIKOAREN AZALPENA.

HELBURUAK:

EDUKIAK

JARRERAZKOAK:

Erritmoaz gozatzea.

KONTZEPTUAK:

Erritmoa: bitarra, hirutarra, lautarra.

PROZEDURAZKOAK:

Erritmoei jarraitzea: txaloz, gorputzaz, ahotsaz.

EKINTZAK

Talde txikian:

A)

Egin bideoan ematen den erritmo bitarraren adibidearen imitazioa eta inprobisazioak. Irakasleak metronomoarena egingo du.

Haurrek bi kolpe jo behar dituzte irakasleak markatzen duen aldian. Ondoren, ikasleek, txandaka, metronomoarena egin dezakete eta gainerakoek erritmoa.

B)

Egin bideoan ematen den erritmo hirutarraren adibidearen imitazioa eta inprobisazioak.

Irakasleak metronomoarena egingo du. Haurrek bi kolpe jo behar dituzte irakasleak markatzen duen aldian. Ondoren, ikasleek, txandaka, metronomoarena egin dezakete eta gainerakoek erritmoa.

C)

Egin bideoan ematen den erritmo lautarraren adibidearen imitazioa eta inprobisazioak.

Irakasleak metronomoarena egingo du. Haurrek bi kolpe jo behar dituzte irakasleak markatzen duen aldian. Ondoren, ikasleek, txandaka, metronomoarena egin dezakete eta gainerakoek erritmoa.

Talde handian:

Egin halako perkusio-saioak non bakoitzak nahi duen erritmoari jarraitzen dion. Helburua taldearen adostasun-aldiak lortzea da, baina berez sortuko dira. Saioan zehar ahotsen batek, aldiro-aldi, besteen atxikimendua lortuko du.

Saioen amaieran, mintzatu horretaz eta proposatu denon artean perkusio-saioa adostea, honako tresna hauen bidez: oinez, txaloz, makilaz, danborraz.

Ondoren, jo adostutakoa, gelan eta beste geletan.

GIDOI LITERARIOA BLOKEKA ETA DENBORA ZEHAZTUZ

6. KAPITULUA

LAKIRIKON: Kaixo! A zer dibertigarria, ezta? Erraza ematen du, eta egiten duten soinua gustura entzuten da. Oso egokia da gaurko saioan landu behar duguna azaltzeko.

BIKURA: Egia da, gaur erritmoari buruz hitz egingo dugu eta.

KIKURA: Tira, aizue, funtzioa prestatu behar dugu, baina jolasean ibiliko gara beste apurtxo batean, bai? Oso dibertigarria da! Ea, orain hirurok.

LAKIRIKON: Ezin dut. Nola egiten da?

BIKURA: Oso erraz: errepika itzazu mugimendu hauek, beti errepikatzen baitira mugimendu berdinak.

LAKIRIKON: Barkatu ba. Tira, jarrai dezagun.

KIKURA\ BIKURA\ LAKIRIKON: Bat, bi eta hiru!

LAKIRIKON: (BARRE) Barkatu.

KIKURA: Ea ba, berriro.

KIKURA: Bai. Tira, azkenekoa.

KIKURA: Baina...

LAKIRIKON: (BARRE) Oso dibertigarria izan da.

BIKURA: (NEGAR) Ba niri, amaiera ez zait gustatu. Baina egia esateko, gehiago ikasi nahi nuke.

KIKURA: Lasai, Bikura, neuk irakatsiko dizut.

LAKIRIKON: A, bai?

KIKURA: Zuri, ordea...

KIKURA: Lehenik eta behin, gogoan izan behar duzue erritmo ezberdinak daudela eta zertan diren ezberdinak.

BIKURA: Zertan dira ba ezberdinak?

KIKURA: Orain esango dizuet. Ea, Lakirikon, lagundu idazu! Erritmo honi jarraitu behar diozu. Demagun Lakirikon gure metronomoa dela: berak markatuko du joko dugunaren abiadura. Erritmorik xumeena binario edo "bitarra" da, hau da, guk bi kolpe sartu behar ditugu Lakirikonek kolpe bakarra jotzen duen aldi guztietan.

KIKURA: Horrela, oso ondo, erraza da, ezta?

KIKURA: Ederto, Bikura! Orain beste erritmo mota bat erakutsiko dizuet. Hau zailagoa da, eta "hirutarra" esaten zaio: (OFF) Lakirikonek kolpe bat jotzen duenean, guk hiru jo behar ditugu. (ON) Niri hau bestea baino gehiago gustatzen zait. Tira, oso ondo, primeran egin duzue. Orain azkena azalduko dizuet. (OFF) "Lautarra" esaten zaio, eta Lakirikonek kolpe bat jotzen duen aldiak guk lau jo behar ditugu!

LAKIRIKON: Ba, oso polita da, eta erritmo bakoitzak zirrara berezi bat eragiten ditu.

BIKURA: Tira, errepika ditzagun den-denak, berriro egingo ditugu. Orain, hirutarra. Eta orain, lautarra. Arretaz entzun duzue? Oso ondo. Ba, abesti batzuetan erritmo ezberdin hauek nahastu egiten dira.

KIKURA: Herri bakoitzean erritmo bereziak sortu dira, eta Euskal herrian ere geure-geureak diren erritmoak sortu ditugu. Txalapartarekin, adibidez, oso erritmo bereziak egiten dira, eta zaldien ibileraren imitazioa omen dira.

LAKIRIKON: A, bai?

KIKURA: Entzun duzue inoiz zaldien trosta? Ba, horrela egiten dute, ikusi!

KIKURA: Tira, kontua da gure arbasoek zaldien trostaren erritmoak jabetu zirela, eta imitatzeko ahaleginean, musika berezi bat sortu zuten. Begira, Bikura, Lakirikon eta biok jo egingo dugu... eta...

BIKURA: Zuok biok?

KIKURA: Bai. Eta zaldi baten ibileraren zarata egingo dugu.

BIKURA: Eta nik?

KIKURA: Zuk, gure musika entzun, eta asmatu egin beharko duzu zaldiak zer egiten duen.

BIKURA: Ongi!

BIKURA: Trostan dabil, baina poliki-poliki. Azkarrago dabil, galopan hasiko dela ematen du. (OFF) Orain haizea bezain azkar doa, mmm!

KIKURA: Kaixo, haurrak! Hemen gatoz berriro abesti berri batekin. Ea atsegin duzuen!

BIKURA: Jakina, oso polita da eta! Niri asko gustatzen zait. Batez ere erritmoa, oso erritmo politak ditu! La-la-la-ra-la-la... Hiru pailazo gara, musika maite dugu, bihurri (OFF) samarrak gara...

LAKIRIKON: Bikura, geldi! Oraindik ez gara hasi!

BIKURA: Ezin dut, erritmoak harrapatu nau!

KIKURA: Neuk lagunduko dizut. Ene! Zer da hau? Ezin naiz gelditu!

LAKIRIKON: Geldiarazi egin behar ditut, bestela ezin izango dugu ezer egin.

LAKIRIKON: Azkenean!

BIKURA\ KIKURA\ LAKIRIKON:

Hiru pailazo gara
Musika maite dugu
Bihurri samarrak gara
Haurrak lagunak ditugu.
Horiek erritmoak
Gustuko ditugunak
Mugi itzazu besoak
Erritmoari eutsi!

JAZZ: Kaixo! Kaixo, lagunok! Beti bezala, gaurkoan zer irakatsi dizuegun gogorarazi nahi dizuet. Gaur erritmoarekin jolastu dugu, eta ikusi duzue, erritmoarekin jolastea oso dibertigarria da. Ezta?

JAZZ: Nola egiten den? Ba, oso erraz: mugimenduak errepikatuz, hau da, mugimendu talde bat behin eta berriro errepikatuz.

JAZZ: Hiru erritmo ezberdin erakutsiko dizkizuet eta pentagrama erabiliko dugu jotzen ditugun notak non kokatzen diren jakiteko.

JAZZ: Eta orain, ikusiko duzue nola irurok batera jotzen duguneak, beste erritmo ezberdin bat sortzen dugula.

JAZZ: Hau benetan dibertigarria da.

BIBLIOGRAFIA

ARANA, M. (1987), *Isilune konpasa (I-II)*. Donostia: Elkar.

ARANA, J. A. et. al. (1992), *Musika historian zehar*. Donostia: Elkar.

ARANA, M. (1993), *Zentzumenak: Entzumena*. Zornotza: Ibaizabal.

ARANA, J.A. (1985), *Euskal musika*. Donostia: Erein.

AZNAREZ, J. J. (Editorea.), (1991), *Entzumenaren heziketa*. Iruña.

AZNAREZ, J. J. (Editorea.), (1994), *Lengoaia musikala*: Iruña.

BIDEOAK

URBIETA, I.:

_ (1978), *Xirula Mirula*. Donostia: Elkar.

_ (1984), *Lau katu eta danbor bat*. Donostia: Elkar.

_ (1985), *Xixupika*. Donostia: Elkar.

_ (1990), *Haur kantaren birlorak*. Donostia: Elkar.

_ (1996), *Ran Roberran*. Donostia: Elkar.

_ (1996), *Txiki, handi, ertain*. Donostia: Elkar.

_ (1996), *Musikaren txokoa*. Donostia: Elkar.

_ (1996), *Mugi, mugi*. Donostia: Elkar.

EGILEAK

PRODUKTOREA

Goiatz Multimedia, S.L.

GIDOIA

Mikel Val

MUSIKA

Inhar Val

SOINU BANDA

Inhar Val

Mikel Val

PRODUKZIO BURUA

Mikel Val

KAMERALARIA ETA ARGIZTATZAILEA

Mikel Val

EDIZIOA

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

INFOGRAFIA ETA TRATAMENDU DIGITALA

GOIATZ MULTIMEDIA

GIDA DIDAKTIKOA:

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

AKTOREAK

NOEMI RUIZ DEL MORAL

MACARENA RUIZ DEL MORAL

MIKEL VAL

SOINUA

K2000

EUSKARAKO ARDURADUNA GIDOIETAN

K2000

AHOTSAK

KIKURA:

Josu Varela

BIKURA:

Tere Jaio

LAKIRIKON:

Ana Tere Bengoetxea

BIKOIZKETA ZUZENDARIA:

Josu Varela

EIMA 2001

Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2008-06-23

LEGE GORDAILUA: SS- 827/06

L.C. PRODUKTOREA

Tel.: 945 230715